

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 25/2023 Foru Dekretua maiatzaren 30ekoa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiatzeari "Euskal Herriko Mendiko Zaldia" arrazako hazitarako zaldia eskuratzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileei, bai eta 2023ko deialdiari ere

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 29ko 31/2010 Foru Dekretuak, azaroaren 27ko 70/2012 Foru Dekretuak aldatuak, zaldi-aziendaren ugaltzaile hautatuak erosteko laguntzak emateko oinarriak onartu zituen.

Denbora igaro denez eta Arabako zaldi sektorean izandako bilakaera kontuan hartuta, beharrezkoa da egungo egoerara eta, bereziki, sektorea pixkanaka profesionalizatzera egokitutako oinarri arautzaile berriak ezartzea.

Dirulaguntza hau 2022ko abenduaren 14ko 2474/2022 (EB) Erregelamenduaren 14-3c artikuluan ezarritako arauen arabera ezarriko da, zeinetan zenbait laguntza kategoria adierazten baitira nekazaritza eta basogintza sektoreetan, eta, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 107. eta 108. artikulua aplikatuz, barne merkatuarekin bateragarriak diren landa eremuetan.

Foru dekretu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako arautze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten dituen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ere jasota baitaude. Hala, azaldutako aurrekarietan behar bezala justifikatu da erregulazio berri baten beharra, eta, gainera, araugintza jarduera proportzionatua da; izan ere, lortu nahi den helburua lortzeko ezinbesteko gutxienez mugatzen da, hau da, zaldia hazitarako erosteko laguntzen oinarri arautzaileak eguneratzera. Egiteko, kontuan hartu dira Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) inspirazio iturri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako legearen testu batekina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren edukia eta Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legea ere. Halaber, kontuan hartu dira Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak horri buruz egindako txostenean jasotako oharak. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzeko dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela. Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu, entzunaldiko eta jendaurreko izapideak bete direlako legez ezarritako epeetan. Eraginkortasun printzipioari dagokionez, planteaturiko arauketak, daukan izaeratik, ez du eragiten administrazio zama osagarririk eta beharrezkoak ez diren herritarrentzat oro har, ezta baliabide publiko gehiago kontsumitzea ere. Sinpletasunaren eta ulergarritasunaren printzipioei dagokienez, proposatutako testua modu egituratuan eta hizkera argia eta ulergarria erabiliz idatzi da.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiatzietan "Euskal Herriko Mendiko Zaldia" arrazako hazitarako zaldiak erosteko laguntzen oinarri arautzaileei.

Bigarrena. Onestea norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko Nekazaritza Sailaren 2023. urterako deialdiari. Hona hemen xehetasunak:

1. Laguntza motak eta diruz lagundu daitezkeen inbertsioak

Deialdi honetan diruz lagundu ahal izango dira honako inbertsio hauek:

12 hilabetetik gorako zaldien (Euskal Herriko Mendiko Zaldia arrazako zaldiak) erosketa, hazitarako erabili ahal izateko.

Erosketak diruz lagundu ahal izango dira, gastuak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera egin badira.

2. Eskaerak aurkezteko epea, lekua eta modua

Eskaerak aurkezteko hogeita hamar egun baliodun izango dira, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera, alde batera utzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritakoa. Eskaerak leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Gasteizko, Guardiako eta Laudioko ogasun bulegoen erregistroak eta eskualdeetako nekazaritza bulegoak.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein. Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak bere 14.2 artikuluan ezarritakoa betez, betiere telematikoki aurkeztu behar dute, egoitza elektronikoaren bidez <https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun> edo beste administrazio publiko batzuetako erregistro elektronikoetan, pertsona juridikoen, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, nahitaez elkargoko kide izatera behartzen duen jarduera profesional batean ari direnek (jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako), eta administrazioarekiko harremanak nahitaez bide elektronikoz izan behar dituen interesdun bat ordezkatzen dutenek.

Laguntza eskaerak formatu eta inprimaki normalizatuan aurkeztu behar dira.

3. Laguntzen zenbatekoa

Laguntza erosketaren kostuaren ehuneko 30 artekoa izango da, BEZa barne, eta eskaera bakoitzeko 1.000,00 euro gehienez.

4. Kreditu erreserba

3.000,00 euro erreserba egin dadila Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 40102. G/419402/77000401 "Zaldi azienda hobetzeko laguntzak" partidaren kontura.

Kreditu hori zenbateko gehigarrien bidez handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein zioengatik gerta daitezkeen kreditu gehikuntza-zen bidez ere.

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Xedapen indargabetzaile. Foru dekretu honen aurka egiten duten maila bereko edo behe-ragoko xedapen guztiak indargabetzea, eta, bereziki, Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 29ko 31/2010 Foru Dekretuak.

Azken xedapen bakarra. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

I. ERANSKINA

Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiategien titularrak diren pertsona fisiko edo juridikoentzako laguntzen oinarri arautzaileak

1. artikulua. Dirulaguntzen xedea

Foru dekretu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustiategien titularrak diren pertsona fisiko edo juridikoentzako laguntzak arautzeko oinarriak ezartzea, "Euskal Herriko Mendiko Zaldia" arrazako hazitarako zaldiak erosteko.

2. artikulua. Aplikatzeko araubide juridikoa

Dirulaguntza horiek dekretu honetan xedatutakoak eta honako lege hauetan ezarritako definizioek arautuko dituzte: Europako Erkidegoko araudia; Nekazaritza Ustiategiak Modernizatzeari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legea; 19/1995 Legean nekazari profesionalaren definizioa aldatu zuen Nekazaritza Ustiategien Titulartasun Partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legea; Landa Eremuaren Garapen Jasangarriari buruzko abenduaren 13ko 45/2007 Legea; Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legea eta foru dekretu hau.

Eta, horiez gainera, baita honako hauek ere: Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako araudi aplikagarria, eta aplikatu beharreko Europako, Estatuko eta autonomia erkidegoko gainerako arau guztiak.

3. artikulua. Ustiategi onuradunak

Dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte Arabako Foru Aldundiaren abeltzaintza eroldaren erregistroan inskribatuta dauden eta Euskal Herriko Mendiko Zaldiaren genealogia liburuan inskribatuta dauden ustiategiak.

Eskaera egiten duten abeltzaintzako ustiategiek, eskaera egiten duten egunean, 24 hilabetetik gorako gutxienez hamar eme ugaltzaile izan behar dituzte Arrazaren Liburu Genealogikoan inskribatuta.

4. artikulua. Eskaerak lehenesteko irizpide orokorrak

Espedienteak hurrenkera honetan lehenetsiko dira:

- Titularra emakumea duten ustiategiak edo emakumeen partaidetza % 50etik gorakoa duten pertsona juridikoen ustiategiak: 5 puntu.
- Titularra finkatze prozesuan dagoen "nekazari gazte" den pertsona fisikoa duten ustiategiak: 4 puntu.
- Finkatze berriko prozesuan dauden ustiategiak: (eskaera egin aurreko 24 hilabeteetan) 3 puntu.
- Onura publikoko mendietan larreak aprobetxatzeko eskubidea duten ustiategiak: 3 puntu.

Diruz lagun daitezkeen espedienteen azken tartean berdinketa gertatuz gero, haien artean hainbanatuko da.

5. artikulua. Eskatutako agiriak

Eskaera bakoitzean agiri hauek aurkeztu behar dira, nahiz eta planteatutako inbertsioen araberago agiri osagarriak ere eskatu ahalko diren:

1. Eskaera orri normalizatua, behar bezala beteta eta sinatuta.
2. Ustiategia osatzen duten pertsona guztien Nortasun Agiri Nazionalaren/Identifikazio Fisikaleko Zenbakiaren (NAN/IFZ) fotokopia, lehenago aurkeztu ez bada.

3. Eskatzaileak zerga betebeharrak beteta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria eta ustiategia osatzen duten pertsona guztiek Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria, salbu eta merkataritza sozietateen kasuan, horiek pertsona juridikoarena bakarrik aurkeztu beharko baitute. Eskatzaileak Nekazaritza Saila berariaz eskuordetu ahal izango du eskaera orriaren bidez, apartatu honetan adierazitako ziurtagiriak eta dokumentuak kasuan kasuko zerbitzuei eskatu ahal izateko.

4. Eskatzaileak bere gain hartzen dituen konpromisoen adierazpena, titularrak edo legezko ordezkariak sinatua.

5. Beste erakunde batzuei inbertsio bererako laguntzarik eskatu ez zaiela adierazten duen adierazpena, eta laguntzarik eskatu bada, eskatu edo jaso diren laguntzei buruzko adierazpena.

6. Eskatzailea sozietate zibil, ondasun erkidego edo jaraunspen erkidego motako pertsona juridikoa bada, oro har eskatzen den dokumentazioaz gainera, ustiategiko bazkide edo kide bakoitzari dagokiona ere aurkeztu beharko du.

7. Laguntza lerro hori ordaintzeko, agiri hauek erantsi behar dira:

- Diruz lagungarriak diren animalien erosketaren fakturak, jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak, onuradunak ordaindu izanaren egiaztapenarekin.

- Ordainketa egiaztatzeko, dagokion banku transferentziaren agiria aurkeztuko da, edo merkataritza trafikoan froga balio bera duen beste agiri bat.

- Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2023rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo horren kontrabalioa atzerriko dirutan; zenbateko hori 1.000,00 euro izango da.

- Aurreko paragrafoan ezarritako zenbatekoa kalkulatzeko, ondasunak edo zerbitzuak ematean zatikatu diren eragiketa eta ordainketa guztien zenbatekoen batuketara egingo da.

- Egindako inbertsioak justifikatzeko agiriak telematikoki aurkezten badira, kopiak jatorrizkoekin bat datozela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena erantsiko da.

8. Zaldien Identifikazio Agiriaren (ZIA) edo zaldi pasaportearen kopia.

9. Animalia jatorrizko abeltzaintzako ustiategitik Arabako Lurralde Historikoko helmugako ustiategira lekualdatzearen agiria.

10. Onura Publikoko Mendiaren (OPM) erakunde titularraren ziurtagiria, hala badagokio, ustiategi eskatzaileak larreak aprobetxatzeko eskubidea duela egiaztatzen duena.

11. Arrazaren genealogia liburuak kudeatzen duen erakundearen ziurtagiria, ustiategia inskribatuta dagoela adierazten duena, eta genealogia liburuaren atalen batean inskribatuta dauden 24 hilabetetik gorako eme ugaltzaileen errolda.

6. artikulua. Laguntzen deialdia eta eskaerak

Deialdi honetan ezarritako laguntzak norgehiagoka prozedura bidez emango dira.

Deialdi bakoitzean eskaerak aurkezteko epea eta tokia zehaztuko dira.

Eskaerak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailera bidali behar dira ezarritako epean.

Eskatzaileek baimena eman ahal izango diote organo kudeatzaileari espedientea ebazteko behar diren egiaztapenak eta informazioa eskatzeko Zerga Administrazioako Estatu Agentzian, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian eta Arabako Lurralde Historikoko ustiategien, makinen eta abereen erregistro ofizialetan. Horretarako baimena eman ezean, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Eskaera aurkezteak berekin ekarriko du laguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako betebeharrak eta konpromisoak onartzea.

Interesdunek aurkezten dituzten dokumentuen egiazkotasunaren erantzukizuna edukiko dute.

Salbuespenez, dokumentuak prozeduran duen garrantzia dela-eta edo kopiaren kalitateak zalantza sortzen badu, interesdunak aurkeztutako kopiak alderatzeko eskatu ahal izango du Administrazioak, eta, horretarako, jatorrizko dokumentua edo informazioa erakusteko eskatu ahal izango dio.

7. artikulua. Onuradunen betekizunak eta betebeharrak

Onuradunek honako betebeharrak hauek izango dituzte, deialdi bakoitzean eta dekretu honetan ezarritako gainerako betekizunaz gain:

1. Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 12. artikuluan zehaztutakoak.

2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexuagatiko bereizkeria egiteagatik administrazio edo zigor zehapenik ez izatea.

3. Itzulketa edo zehapen prozeduraren baten pean ez egotea.

4. Laguntza eman eta ordaindu baino lehen, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta zerga betebeharrak ordainketan egunean egotea. Sozietate zibil edo ondasun erkidegoen kasuan, sozietateari nahiz bazkideei edo erkidegoko kideei buruzkoa izan beharko da egiaztatpena.

5. Nagusiki nekazaria izatea. Nagusiki nekazaritzat hartuko dira M06.1 neurriaren bidez ("Nekazari gazteek enpresak sortzea") finkatze prozesuan dauden gazteak nahiz neurri hori eskatu duten gazteak.

6. Ustiategi elkartuen kasuan, nagusiki nekazaritzat hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte: bazkideen ehuneko 50, gutxienez, nagusiki nekazariak izatea, eta kapital sozialaren edo banaketa kuotaren ehuneko 50, gutxienez, nagusiki nekazariena izatea.

7. Ustiategi behar bezala inskribatuta egon behar da Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiaren erregistroan, eta deialdi bakoitzean zehaztuko diren ekoizpen orientazioa eta gutxienerako tamaina izan behar ditu.

Laguntza hauen onuradunen betebeharrak hauek izango dira:

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko dagokion zerbitzuari informazioa bidaltzea, diruz lagundutako jardueraren ekarpena neurtu ahal izateko. Informazio hori laguntza programa bakoitzerako zehaztuko da.

- Diruz lagundutako jarduera bera finantzatzeko jasotzen diren gainerako laguntza guztien berri ematea, dirulaguntza eman duen erakundea eta emandako zenbatekoa adieraziz eta adjudikazioaren ebazpenaren kopia aurkeztuz.

8. artikulua. Inbertsioak onesteko betekizunak

Diruz laguntzen diren jarduketek aplikagarri zaien indarreko araudia bete beharko dute.

Laguntzen onuradunek laguntza eskatu den urteko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako inbertsioak soilik onartuko dira.

9. artikulua. Diruz lagun daitezkeen edo hauta daitezkeen kostuak

Kostu hautagarritzat hartzen dira programa honetan ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak direnak.

10. artikulua. Diruz lagun daitezkeen inbertsioak

Deialdi bakoitzean zehaztutakoak izango dira.

11. artikulua. Dirulaguntzen intentsitatea eta zenbatekoa

Laguntzaren gehieneko intentsitatea deialdi bakoitzean zehaztuko da, eta jarduketa bakoitzerako edo guztietarako laguntzaren ehuneko adierazi beharko da, bai eta ustiategi eta/edo inbertsio bakoitzeko laguntzaren gehieneko eta gutxienerako zenbatekoak ere.

12. artikulua. Izapidetzea eta ebaztea

Laguntza emateko ebazpena egin eta argitaratzeko, sei hileko epea izango da gehienez, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera, edo deialdiak hala ezarriz gero, geroagoko egun batetik aurrera, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 25.4 artikulua arabera. Sei hileko epe horretan esanbidezko ebazpenik eman edo argitaratzen ez bada, interesdunek eskaera ezetsizat jo beharko dute, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 25.5. artikulua arabera.

Espedientea bideratzen den bitartean, laguntzaren organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahal izango ditu, ebazpen proposamena egiteko beharrezkoak diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Eskaera guztiak aztertuko dira, eskatzaileak onuradun izateko eskatzen diren betekizun guztiak betetzen dituela egiaztatzeko, eta zehazteko gastu onargarria, hautapen irizpideen arabera inbertsioari esleitu beharreko puntuazioa eta proposamenari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa. Hala, prest geratuko dira horretarako sortutako kide anitzeko organoak balioetsi ditzan. Egindako balorazioa jasotzen duen txostena egingo du organo horrek, non onartutako proposamenak, baztertutakoak eta arrazoiak jasoko baititu.

Balorazioa eman behar duen kide anitzeko organoa honako hauek osatuko dute:

- Abeltzaintza Zerbitzuaren burua.
- Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.
- Abeltzaintza Zerbitzuko teknikari bat.

Instrukzio organoak argitu eta ebatzi beharko ditu foru dekretu honetan jasota ez dauden alderdi tekniko guztiak, laguntza esleitu ahal izateko.

Dirulaguntza emateko ebazpen bakoitzean honako hauek ezarriko dira: dirulaguntzaren ehunekoa eta zenbatekoa, laguntza zein inbertsiori eman zaion, diruz lagundutako gastua eta finantzaketaren jatorria. Ebazpena negatiboa izanez gero, arrazoia zehaztu beharko da.

Laguntzaren ebazpena banan-banan jakinaraziko da eta honako informazio hau eman beharko da: emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta ehunekoa, diruz laguntzen den inbertsioa, diruz lagundutako inbertsio gastua.

13. artikulua. Onuradunen eginbeharrak

Oro har, laguntzen onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- Emandako dirulaguntza onartzea eta eman zaien xederako erabiltzea, laguntzak esleitzeko ebazpenean ezarritako baldintzekin bat etorritik. Laguntzaren esleipenaren jakinarazpena jasotzen duenetik hamar egun balioduneko epean onuradunak ez badio dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten, onartu egin duela ulertuko da.

- Foru dekretu honetan eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako konpromiso eta betebeharrak guztiak betetzea.

- Foru dekretu honen babespean jasotako laguntzaren inguruan dituzten eginkizunak baliatuz Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ogasun sailek, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileko organo eskudunek eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako informazio oro ematea.

- Laguntza behar bezala eman eta garatu dela, diruz lagundutako inbertsioak behar bezala gauzatu direla eta ondoren konpromisoari eutsi zaiela egiaztatzen nahian administrazioak egin behar dituen edo bertatik bertara egin beharreko kontrolak egin daitezela ahalbidetzea.

- Jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak bost urtez gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrol jarduketak egin ahal izateko.

- Egindako inbertsioa gutxienez hiru urtez mantentzea, deialdiaren ebazpenaren datatik aurrera.

14. artikulua. Laguntzak kontrolatzea eta ordaintzea

Laguntza emateko ebazpena eman ondoren ordainduko da laguntza.

15. artikulua. Ebazpena aldatzea, ez-betetzeak eta itzulketa

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, dirulaguntza emateko ebazpena ere aldatu ahal izango da.

Era berean, Estatuko beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek xede bererako emandako dirulaguntzak lortuz gero, eta horrek dekretu honetan jasotako dirulaguntza bakoitzari dagokion laguntzaren guztizko zenbatekoa gainditzea badakar, oinarri arautzaile hauetako dirulaguntzen zenbatekoa proportzionalki murriztuko da.

Laguntza itzuli beharko da jarraian adieraziko diren ehunekoetan, legezko interesekin handituta, honako kasu hauetan:

- ehuneko 100, dirulaguntzaren xede den aberea dirulaguntza jaso duen ustiategian egon ez bada urte oso batean, bertan sartu denetik.

- ehuneko 66, dirulaguntzaren xede den aberea ustiategian urtebetez soilik egon bada, bertan sartu denetik.

- ehuneko 33, dirulaguntzaren xede den aberea ustiategian bi urtez soilik egon bada, bertan sartu denetik.

Hartutako konpromisoen ez-betetzetik ez dagoela ulertuko da baldin eta ez-betetzea ezinbesteko kausa baten ondorio edo inguruabar berezien ondorio bada, adibidez:

- Ekoizlea hiltzea edo luzaroan lanbiderako ezinduta egotea.

- Ustiategiko abereak edo nekazaritza azalera nabarmen kaltetzen dituen hondamendi natural larria gertatzea.

- Ustiategiko eraikinak halabeharrez suntsitzea.

- Epizootia bat izatea eta ustiategiko abere guztiei edo batzuei eragitea.

- Laguntzaren xede diren hazitarako zaldiak hiltzea edo aurreikusitako eginkizuna betetzeko ezintasuna izatea.

Onuradunak ezinbesteko kausen edo salbuespenezko inguruabarren berri jakinaraziko die agintari eskumendunei, eta haiek kasuan kasuko ziurtagiriak eskatu ahal izango dituzte.

16. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Programa honetan ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) xede bererako emandako dirulaguntza edo laguntzekin, baina ezin izango dute guztira egindako inbertsioa gainditi.